



# Txomin pixontzia



## Balore morala: Hezkuntza



Gure auzoan bada Txomin mainontzi izeneko mutiko bat: Txomin mainontzi, negar ta pixontzi. Txomin mukiak zintzilik dituela ibili ohi da egunero eta deus gutxi importa zaiola dirudi. Esku luzea izaki, edonor jotzeko gai da baina bera ezin du inortxok ere ukitu. Segituan hasten da zalaparta batean negarrez, horregatik deitzen diogu Txomin mainontzi, negar ta pixontzi. Horregatik eta sei urte zituela, galtzak jaitsi eta edonon pixa egiten jartzen zelako. Lotsaren arrastorik gabe. Orain ez du horrelakorik egiten, auzokoak haserretu zirenez geroztik.

Gauza da larunbat goiz batean etxe pareko lorategi batean jolasten geundela, txilibitua atera eta geranioei pix egiten hasi zela:

- Hara nire ur jauzia! Munduko ur jauzirik handiena da! Horrela handituko dira geranio hauek zeruraino! - esanez.

Barre egin genuen guztiok, oso ausarta eta gaixtoa baitzen Txomin.

Gutako inor ez zen ausartzen galtzak jaitsi eta haren ur jauziari desafioa botatzen.

Bat-batean, ordea, auto bat iritsi eta bi gizon jaitsi ziren bertatik.

- Zertan ari zara mutikoa? Ez al dakizu debekatuta dagoela nonahi pix egitea?-


Handiak ziren gizonak eta sendoa zen haien ahotsa. Barre egiteko gogoak alde egin zigun eta serio geratu ginen guztiok. Baita Txomin mainontzi ere. Ez zen isilik egotekoa ordea, eta erantzun egin zien:

- Utz nazazue bakean! Nahi dudana egingo dut! -

Txominen aita hurbildu zen gero, seko lotsatuta galtzak igotzeko esanez.

- Zurea al da semea? Lotsa eman behar lizuke gero! Hau lorategia hondatzen eta zu lasai arraiol! -

Orduan bai ikaratu ginela guztiok! Txomin mainontziren aita zen munduko aitarik beldurgarriena. Hari ez zion inork zer egin behar zuen esaten, inolaz ere.



# Txomin pixontzia

Balore morala: Hezkuntza



Ez zuen deus ere esan.

-Txomin! Etxera joango gara lotsagabe alena! Ez al diezu gizon hauei entzuten? Bestela kartzelara eramango zaituzte! -

Txomin etxera joan zen larunbat goiz hartan eta baita haren aita ere. Bi gizon haiei txintik esan gabe.

Ordunik egunak, asteak eta hilabeteak igaro dira eta geranioak ez dira Txominek esan zuen bezala hazi.

Zikina baita kalean galtzak jaitsi eta geranioei pixa egitea. Zikina eta itsusia.

Geroztik Txominek ez die geranioei pixik egin, eta saiatzen da mukiak zintzilik dituela ez ibiltzen. Baina guretzako, Txomin mainontzi, negar ta pixontzi izaten jarraitzen du.

Geranioei pixik egin ez arren, edozergatik negar egiten duelako.

